



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO ALDEZ AURREKO KONTSULTA EZARTZEKO DENA. XEDAPEN HORREN BIDEZ, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZAKO ZERBITZU PUBLIKOEN 2023-2024 IKASTURTEKO PREZIOAK FINKATUKO DIRA ETA HORIEN SALBUESPEN ETA MURRIZKETEZ BALIATZEKO BALDINTZAK ZEHAZTUKO DIRA.

Hezkuntza Sailak urtero xedapen orokor bat egiten du, goi-hezkuntzako zerbitzu publikoen truke ordaindu beharreko prezio publikoak finkatzeko eta prezio horien salbuespen eta murriztapenez baliatzeko baldintzak ezartzeko.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1 artikuluan xedatzen duenez, arau-xedapenaren proiektu bat egin aurretik kontsulta publikoa egin behar da administrazio eskudunaren atariaren bidez, eta kontsulta horretan etorkizuneko arauak eragin ahal dien pertsona eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasoko da.

Kontsultak honako alderdiei buruzkoa izan behar du:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartzeko premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen ordezeko irtenbide batzuk, arautzaileak eta ez arautzaileak.

2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluak xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzen dituen erabakia hartu zuen. Besteak beste, erabaki horrek alde aurreko kontsultaren izapidea betetzeko jarraibideak zehaztu zituen, eta xedatu zuen izaera orokorreko xedapenaren organo sustatzaileak izapidetu dezakeela alde aurreko-kontsulta, EAEko administrazio orokorreko egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita, eta informazio hori bera Legegunean jarri behar dela, gardentasunari buruzko legeriazioak publikitate aktiboari buruz agintzen duena betez.

Alegia, kontsulta publikoko izapidea:

- Etorkizuneko arau-erregulatze horrek eragin ahal dien instituzio publiko, pertsona fisiko, erakunde edo elkarte guztiei zuzentzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian emango da argitara.
- Hogei egun balioduneko epea ematen du eragindako instituzioek, herritarrek eta beren erakundeek nahi dituzten iradokizun edo oharrak aurkez ditzaten.

Horregatik, legez aurreikusten den eskemaren arabera gauzatzen da, orain, kontsulta publikoaren tramite hori. Gainera, arau-proiektua egin aurretik eta ekainaren 30eko 6/2022



Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, 4. eta 5. artikuluetan arautzen duen fasean gauzatzen da.

Otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Kontsulta publikoaren izapidea gauzatzea, 2023-2024ko ikasturtean Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen goi-hezkuntzako zerbitzu publikoen truke ordaindu beharreko prezioak finkatuko dituen eta prezio horien salbuespen eta murriztapenez baliatzeko baldintzak ezarriko dituen xedapen orokor baten proiektua egin aurretik.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragiten dien erakundeek hogeit hamar laneguneko epea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritziak Sailari helarazteko.

Jokin Bildarratz Sorron
Hezkuntzako sailburua

ERANSKINA

1.- Ekimen arauemaile horren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen prezioak finkatu nahi dira 2023-2024 ikasturterako, bai eta prezio horien salbuespen eta murriztapenez baliatzeko baldintzak ezarri ere.

2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Hezkuntza Sailak xedapen orokor bat egiten du urtero, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen prezio publikoak finkatzeko eta prezio horien salbuespen eta murriztapenez baliatzeko baldintzak ezartzeko. Horregatik, beharrezkoa da arau hau onartzea, 2023-2024 ikasturteko prezioak finkatu ahal izateko.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Araudi horren xedea da Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatearen goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen truke ordaindu beharreko prezio publikoak finkatzea 2023-2024 ikasturterako, bai eta horien salbuespen eta murriztapenez baliatzeko baldintzak ezartzea ere.

4.- Egon daitezkeen ordezeko irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Arau horrek prezio publikoak finkatu behar ditu, Unibertsitate Politikako Konferentzia Orokorrak ezarritako muga barruan, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 81.3.b) artikuluan ezartzen den bezala (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatua).

Bestalde, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 39. artikulua jasotzen ditu unibertsitate-zerbitzu akademikoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioen salbuespenak eta murriztapenak, bai eta lege ezartzen diren gainerako eskubideak ere. Eskubide horiek Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek izango dituzte, erregelamenduzko aurreikuspenen esparruan. Era berean, artikulua horretan arautzen da prezio publikoak finkatzeko aginduak salbuespen-baldintzak zehaztu ahal izango dituela, bai eta beste salbuespen oso edo partzial batzuk ezarri ere, baldin eta diskriminazio arbitrarioz ez badakarte.

ORDEN DEL CONSEJERO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA LA ELABORACIÓN DE UNA DISPOSICIÓN DE CARÁCTER GENERAL POR LA QUE SE FIJAN LOS PRECIOS DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS DE EDUCACIÓN SUPERIOR DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA PARA EL AÑO ACADÉMICO 2023-2024 Y SE DEFINEN LAS CONDICIONES PARA EL BENEFICIO DE LAS EXENCIONES Y REDUCCIONES DE LOS MISMOS.

El Departamento de Educación, anualmente elabora una disposición de carácter general con el objeto de fijar los precios públicos a satisfacer por los servicios públicos de educación superior y establecer las condiciones para el beneficio de las exenciones y deducciones de los mismo .

El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas dispone que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto de disposición normativa, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La consulta se debe referir a los siguientes aspectos:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- c) Los objetivos de la norma.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

El Acuerdo del Consejo de Gobierno de 12 de diciembre de 2017 aprueba instrucciones sobre la aplicación del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general. Entre otras, recoge instrucciones sobre la cumplimentación del trámite de consulta previa, estableciendo que este trámite podrá realizarlo el órgano promotor de la disposición de carácter general mediante anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y la misma información se debe exponer en Legegunea, a los efectos de cumplir con las obligaciones de publicidad activa derivadas de la legislación sobre transparencia.

En conclusión, el trámite de consulta pública:

- Se abre a todas aquellas instituciones públicas y personas físicas, así como organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por esa futura regulación normativa.
- Se publicará en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Se establece un plazo de 20 días hábiles para que las instituciones afectadas, la ciudadanía y sus entidades presenten todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Ese trámite de consulta pública es, por tanto, el que en estos momentos se realiza siguiendo el esquema legal previsto. Se efectúa, además, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo y dentro de la fase de iniciación que regulan los artículos 4 y 5 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación.

RESUELVO:

Primero.- Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general por la que se fijan los precios a satisfacer por los servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para el año académico 2023-2024 y se definen las condiciones para el beneficio de las exenciones y reducciones de los mismos.

Segundo.- La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en esta Orden en el plazo de veinte días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Jokin Bildarratz Sorron
Consejero de Educación

ANEXO

1.- Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa normativa.

Se pretende regular la fijación de los precios de los servicios públicos de educación superior y establecer las condiciones para el beneficio de las exenciones y deducciones de los mismo de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para el curso 2023-2024.

2.- Necesidad y oportunidad de su aprobación.

El Departamentos de Educación, anualmente elabora una disposición de carácter general con el objeto de fijar los precios públicos de los servicios públicos de educación superior y establecer las condiciones para el beneficio de las exenciones y deducciones de los mismo de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, por lo que es preciso aprobar esta norma para fijar los precios para el curso 2023-2024.

3.- Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar.

Esta normativa tiene por objeto fijar los precios públicos a satisfacer por los servicios públicos de educación superior y establecer las condiciones para el beneficio de las exenciones y deducciones de los mismo de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para el curso 2023-2024.

4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

La norma debe fijar los precios públicos dentro de los límites establecidos por la Conferencia General de Política Universitaria, tal y como se establece en el artículo 81.3.b) de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, (modificada por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril).

Por su parte, el artículo 39 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, recoge las exenciones y reducciones de los precios a satisfacer por la prestación de servicios académicos universitarios y demás derechos que legalmente se establezcan, que disfrutarán las y los estudiantes de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, en el marco de las previsiones reglamentarias. Asimismo, en dicho artículo se regula que la orden o el acuerdo de aprobación de los precios públicos podrán precisar las condiciones de exención, así como fijar otras exenciones totales o parciales, siempre que no impliquen una discriminación arbitraria.